



Ebazpena, 2018ko martxoaren 12koa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen horren bidez 2017-2018 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko egin zen deialdia behin-behinean esleitzen da.

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2017ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez, 2017-2018 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen (2017ko abenduaren 28ko EHAA).

Deialdi hori arautzen duen Aginduaren 8. artikulua araberaz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Behin-behinean esleitzea deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten ikasleen diru-laguntzak.

Bigarrena: Interesdunak jakinaren gainean egon daitezen, deialdiaren behin-behineko esleipenaren zerrendak eta diru-laguntzen kopurua iragartzea; eta hala badagokio, diru-laguntza ukatzeko arrazoiak azaltzea "euskadi.eus" web-guneko iragarki taula elektronikoan.

Hirugarrena: Behin-behineko esleipen honen kontra alegazioak egin edo agiriak aurkez ditzake eskatzaileak bere interesen defentsarako. Alegazioak 15 egun balioduneko epean egin beharko dira, iragarki hau argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Laugarrena: Behin-behineko ebazpenaren kontrako alegazioak aurkezteko epea bukatutik, ebazpen hori behin betikotzat joko da, alegaziorik jaso ez duten eskarietarako. Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeak bihurtuko ditu behin-behineko ebazpenak behin betiko, eta <https://euskadi.eus> webguneko iragarki-taulan argitaratuta jakinaraziko da.

Bosgarrena: Behin-behineko ebazpenaren kontrako alegaziorik aurkeztu bada, eta behar diren egiaztapenak eta izapideak egin ondoren, Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeak behin betiko ebazpena emango du, 8.2 artikuluan agertzen diren datuak aipatuta, eta ebazpena <https://euskadi.eus> webguneari iragarki-taulan argitaratuta jakinaraziko da.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 12an.


Olatz Garamendi Landa
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea